

# BIZKAI'KO FORUA

(1)

Guk bizkaitarrok besteak beste ez dogu sekulan gelegi esango gure Foruaz. Zer adierazten ete dau itz onek, edo obeto, oraintsu nekertua izan dan Bizkai'ko Foruak zer esan ete gura dau? Ona labur: Antxiña bateko euskaldunen usuario, ekandu ta oituren mordo edo sail bat.

Orize, bai, Bizkai'ko erriak, ekizez sortu, ta bizi izanik, olantze moldatu eben euren bizibidea istorian zear; antxiña-antxiñatik, istori edo edesti aurretik ziur asko. Gure arbaso ta gurasoak, oillo-lur zetan bizi izanik, euren ekandu ta usuarioak zituezan, eta oneik alkat-arrik osatu zan gure Foru zarra.

Beraz, geure izatetik sortua da Bizkai'ko Forua. Geure aurretikoak emandako frutua, eura erabili ta bizi izanik, eundaka ta bear bada millaka urteak zear usatzez eta erabiltez aundi egiñiko ekanduen bilduma. Izpillu eder bat dogu, ba, Foru au bizkaitar arimea garbi ta bikain darakusguna.

Lege edo ekandu-mordo au, berezkoa da-ta, luzaro egon zan idatzi barik. XIV'rarte edo, ez egoan paperetan, ez arrietan edo narrietan, auz-azkoa zan. Legea zan, orraitino, eta idatzita ez egoalako oituzako legea esaten yako. Gure arrantzaleak gaur be olako ainbat gaur daukez, idatzi bakoak baiña legetzat daukezanak.

Egokij yaku jakitea, gaur Foru arazoa sarri aitatzen dugu-ta. Foru

zarrá esaten yakona 1452'an idatzia izan zan, guztientzat nunbait. Onezaz gainera elizate bakotxak eukan bere foru edo lege-mordo berezia. Foru Barriztatua 1526'an osotua da, Burgos'en argitara emona, eta Gernika'ko Batzarrak onartua, 1876'ko garagarrillaren 21'an ezeztua izan zan arte.

Barriztatze ori egiterakoan, osterá, amaseigarren gizaldi aurretik, eta gero be, indarrean egon ziran usuario eta ekandu asko barrizturiko Forutik kanpo geratu ziran. Txorta bat zan barriztatzaille areik osotua, antxiñako lege, usuario ta oituretatik baliotsuena artuaz.

Barriztatze lan au Burgos'ko Martin Perez batxillerrak eta Ibarquen'go Inigo Urtiz'ek egin eben, eta ogei egunen barruan egin be, Gernika'ko Batzar nagusiak aginduta. Orduan be ba-ekien olako gauzak zelako inportantziz osotu. Zelako juramentua egin bear izan eben, lan-bitartean zelan zainduta egon ziran eta euren egitekoa burutu eben, zelan aztertua izan zan aren lana, oso aundikiro adierazten dauskuz Foru barriztatuak. On yaku guri be ori ta beste gauza asko jakitea. Baiña au urrengo lantxo batzuetan.

Aspaldiko Foru au, oraintsu, euskeraz ta erderaz argitaratua izan da. Liburu mardul onek 543 orrialde daukaz. Letra aunditan, Graficas Ellakuria'k irarria. Erderazko textuaren ardura Jose Estornes Lasa lege-gizonak izan dau, eta itzulpena lenengo aldiz egiña Pedro Puxana Agirregabiria abadearena dozu. Naiz batak naiz besteak ederto burutu dabe euren zeregiña.

Erderatik euskerara egiñiko biurpenari begiratzuz, esku ona izan dabe orretan saiatu diranak. Biur-lana batez be gizonki egiña daukazu. Ez yakon ain erreza izango euskeratzaillari ainbat erdal itz eta esaera biurri menderatzea, baiña Puxana'k orixe lortu dau, ulertzeko zailla zan gai bat ulert-errez biurtu; erdal legegizonak euren auzi, eztabaida ta olakoetan brista-brasta darabillezan esakun, izen, izenlagun eta esaldiak oso naasi ta aldrebesak dira, erromatarren garaitik onako liburuetan mordoillo be mordoillo yatorkuzanak, baiña euskal itzulpen onetan, euskera pizkat dakianarentzat, naiko argi geratzen dira, itzultzaillari argiari eskerrak.